

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN DIRU LAGUNTZA DEIALDIA 2024

-GIDA LABURTUA-



BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA

BAO

246. zk.

2023, abenduak 27. Asteazkena

1. orr.

I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Foru Aldundia

Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 204/2023 FORU DEKRETUA, abenduaren 21ekoa, dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituena. Dirulaguntza horiek emango zaizkie, hain zuzen ere, 2024ko ekitaldian euskararen erabilera sustatzen duten merkataritza-sozietateei, kooperatiba-sozietateei, enpresaburu indibidualei eta profesionalei.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN DIRU LAGUNTZA DEIALDIA

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua: 204/2023 FORU DEKRETUA, abenduaren 21ekoa



BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA

BAO

246. zk.

2023, abenduak 27. Asteazkena

1. orr.

I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Foru Aldundia

Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 204/2023 FORU DEKRETUA, abenduaren 21ekoa, dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituena. Dirulaguntza horiek emango zaizkie, hain zuzen ere, 2024ko ekitaldian euskararen erabilera sustatzen duten merkataritza-sozietateei, kooperatiba-sozietateei, enpresaburu indibidualei eta profesionaleri.

DIRULAGUNTZAREN XEDEA

Lantokiko Prestakuntza eta Duala (1. eta 2. mailakoa) euskaraz egingo den lantokien gastuak finantzatzea.


Enpresa bakoitzak eskaera BAKARRA egin behar du: ikasle guztiak eskaera bakarrean jasoz.

2024ko partida, xede honetarako: 50.000 euro.

Deialdia 3. orr.:

I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. oinarria.— *Dirulaguntzaren xedea*

1. Hauek izango dira dirulaguntzon xede:
 - a) 2024ko ekitaldian enpresa-munduan euskararen erabilera sustatzeko Bizkaiko Lurralde Historikoan egingo diren planak.
 -  b) 2024ko ekitaldian Lantokiko Prestakuntza modulua euskaraz egiteko aukera eskaintzeak dakartzan gastuen finantzaketa.

Laguntza hauen helburua da honako hauek euskaraz egiteko aukera eskaintze-ko eskatzaileek egindako hainbat gastu finantzatzea:

 - 1) Lantokiko Prestakuntza-modulua, 2003ko uztailaren 8ko 156/2003 Dekretuak, Lanbide Heziketako Heziketa Zikloen baitan Lantokiko Prestakuntza Modulua egiteko modua arautzen duenak, xedatutakoaren arabera.
 - 2) Modalitate dualean egindako prestakuntza, 2015eko ekainaren 2ko 83/2015 Dekretuak, Ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa Duala Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak, xedatutakoaren arabera.
 - c) Ostalaritza- eta merkataritza-establezimenduetan bezeroak aurrez aurre euskaraz artatzeko ekintzak eta materialak 2024ko ekitaldian.

FINANTZATUKO DIREN GASTUAK

- **Intrukzioaz, garapenaz, jarraipenaz eta ebaluazioaz arduratzen diren pertsonen prestakuntza berezituaren kostua**
 - **Xede horretarako dokumentu materialak euskaraz egiteko kostuak**
 - **Enpresa egonaldia euskaraz egin ahal izateko bestelako gastuak eta kostuak**
-

Deialdia 4. orr.:

- b) Bestalde, Lantokiko Prestakuntza modulua euskaraz egiteagatik eragiten diren gastuen finantzaketari dagokionez, aurreko paragrafoan adierazitakoez gain, hurrengoak ere joko dira diruz laguntzeko gastutzat:
- 1) Eskatzailearen aldetik lantokiko prestakuntza euskaraz egin ahal izateko instrukzioaz, garapenaz, jarraipenaz eta ebaluazioaz arduratzen diren pertsonen prestakuntza berezituaren kostua.
 - 2) Xede horretarako dokumentu materialak euskaraz egiteko kostuak.
 - 3) Praktikaaldiak euskaraz egin ahal izateko sortzen diren berariazko beste gastuak edo kostuak.

ESKAERA EGITEKO LEKUA ETA EPEA

- ESKABIDEAK hemendik: <https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>
 - EPEMUGA: 2024ko martxoaren 15eko 13:30ean
-

Deialdia 6. orr.:

III TITULUA PROZEDURA

5. oinarria.— *Eskabideak aurkezteko lekua eta epea*

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14 artikulua araberako eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira:

— <https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

Egoitza elektronikoko izapideen katalogoan dago foru-dekretu honen laburpen-fitxa.

2. Eskabideak aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 15ean hasiko da eta 2024ko martxoaren 15eko 13:30ean amaituko da.

ESKAERAREKIN AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- Estatutuen kopia edo eratze-eskriturak
- Dagokion Erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria (hala badagokio)
- Legezko edo borondatezko ordezkari-tza ziurtatzeko egiaztagiria
- Proiektuaren azalpena eta ikaslearen markoaren ziurtagiria
- Enpresa egonaldiaren ordu-kopurua kuantifikatu eta egiaztatuko duten dokumentuak (ikasle bakoitzeko)
- Egoitza elektronikoko agiriak: sarrera eta gastuen aurrekontua (eskatutako proiektua gauzatzeko finantza baliabideak)
 - Instrukzioaz, garapenez, jarraipenez eta ebaluazioaz arduratzen diren pertsonen prestakuntza berezituaren kostua
 - Dokumentu materialak euskaraz egiteko kostua
 - Enpresa egonaldia euskaraz egin ahal izateko sortzen diren berariazko beste gastuak edo kostuak

Deialdia 6. orr.:

6. oinarria.— *Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta betekizunak*

ESKAERAREKIN AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Dokumentazio egiaztagarria: Euskara Zerbitzuak nodotik kontsultatuko du dokumentazio egiaztagarria, baina interesdunak modu espresean kontra dagoela adierazten badu, aurkeztu beharko ditu dokumentu hauek.

Deialdia 8. orr.:

7. oinarria. — Dokumentazio egiaztagarria

Dauden datu-bitartekaritarako sistemen bidez, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa erabilita, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Euskara Zerbitzuak egiaztatu eta kontsultatu egingo ditu administrazio publikoek interesdunei eta haien ordezkariari buruz dituzten datuak, dekretu honen izapidetze administratiborako beharrezkoak direnean, interesdunak modu espresuan kontra dagoela adierazten ez badu. Kontra egonez gero, arrazoiak adierazteaz gainera, behar diren datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Datu horiek honako hauek dira:

- a) Banku kontuaren titulartasun datuak.

Eskatzaileak uko egiten badio administrazioak bere bitartekoak erabiliz bankuko datuak egiaztatzeari, kasu horietan bakarrik, banku-helbideratzearen fitxa behar bezala beteta aurkeztu beharko da, egoitzan edo web orrian eskuragarri dagoen eredu ofizialaren bitartez:

— <http://www.bizkaia.eus/kulturadirulaguntzak>

- b) Pertsona fisiko enpresaburuen eta profesionalen kasuan, Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergan alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.
- c) Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- d) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera jotzea, Euskara Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

Datu horiek eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin bat, bai eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorritz.

DIRULAGUNTZA KOPURUA

- 600 euroraino, ikasle guztien gastu orokorregatik
- Ikasle bakoitzaren prestakuntza-ordu bakoitzeko 0,50 euro, gehienez ere 400 orduko mugaz ikasle bakoitzeko
- 1500 euroko mugaz ondorengoak:
 - Instrukzioaz, garapenaz, jarraipenaz eta ebaluazioaz arduratzen diren pertsonen prestakuntza kostuagatik
 - Dokumentu materialak euskaraz jartzeagatik
 - Beste gastu edo kostuengatik

Deialdia 9-10. orr.:

2. Foru Dekretu honen 1.1.b) oinarriko dirulaguntzei dagokionez, onartutako eskaera bakoitzean, hiru zati izango ditu dirulaguntzak:

- a) 600 euroraino, eskaerak jasotzen dituen ikasle guztien kostu edo gastu orokorrak estaltzeko.
- b) Ikasle bakoitzaren prestakuntza-ordu bakoitzeko 0,50 euroraino, gehienez ere 400 orduko mugaz ikasle bakoitzerako.
- c) Betiere 1.500 euroko mugaz, honako gastu hauek:
 - 1) Eskatzailearen aldetik lantokiko prestakuntza euskaraz egin ahal izateko instrukzioaz, garapenaz, jarraipenaz eta ebaluazioaz arduratzen diren pertsonen prestakuntza berezituaren kostuaren zehaztapena.
 - 2) Xede horretarako dokumentu materialak euskaraz egiteko kostuen zehaztapena.
 - 3) Praktikaaldiak euskaraz egin ahal izateko sortzen diren berariazko beste gastuak edo kostuen zehaztapena.

Ematen diren dirulaguntzen kopuruaren gehieneko muga izango da 3.000 euro, eskatzaile bakoitzeko. Dirulaguntza hauetarako xedatutako kopuruak ez badu, hautatutako eskaera guztiak multzoan hartuta, aipatutako zenbateko horietara iristeko biderik uzten, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionalki murriztuko da.

DIRULAGUNTZA KOPURUA

Proiektuaren kopurua ezartzeko kontuan hartu beharrekoak:

- A) Proiektuaren zenbatekoa: gastu osoa (**instruktoarearen nominak**, materiala...; justifikazioan osorik justifikatu behar da kopuru hau).
 - B) Eskatzailearen ekarpena: proiektuaren zenbatekotik % 35 gutxienez.
 - C) Diru-laguntza publikorik badago edo bestelako sarrerarik badago, adierazi egin behar da.
 - D) Eskatutako kopurua: PROIEKTUAREN ZENBATEKOA KEN (B ETA C-REN BATURA); proiektuaren zenbatekotik zenbat eskatu nahi den (gehienez ere 3.000).
-

“Proiektuaren zenbatekoaren kopurua” izango da, gutxienez, ikaslea instruktorearekin egon den lan orduen soldata, hau da, hilabeteetako nominen kopuruaren batura.

Proiektua / Proyecto

LANTOKIKO PRESTAKUNTZA

Proiektuaren zenbatekoa / Importe proyecto

~~780,00~~

€

Eskatutako kopurua / Cantidad solicitada

780

€

Eskatzailearen ekarpena / Aportación Solicitante

0

€

DIRULAGUNTZA KOPURUA

Proiektuaren kopurua ezartzeko kontuan hartu beharrekoak:

- A) Proiektuaren zenbatekoa: gastu osoa (instruktoarearen nominak, materiala...; justifikazioan osorik justifikatu behar da kopuru hau).
 - B) **Eskatzailearen ekarpena: proiektuaren zenbatekotik % 35 gutxienez.**
 - C) Diru-laguntza publikorik badago edo bestelako sarrerarik badago, adierazi egin behar da.
 - D) Eskatutako kopurua: PROIEKTUAREN ZENBATEKOA KEN (B ETA C-REN BATURA); proiektuaren zenbatekotik zenbat eskatu nahi den (gehienez ere 3.000).
-

Deialdia 3. orr.:

Autofinantzaketa: gutxienerako autofinantzaketa-maila bete behar da (proiektu bakoitzaren aurrekontu araztuaren %35a). Deialdiaren 1.2 oinarria:

2. Dirulaguntza-eskaeraren zergatia diren proiektuek 2024ko ekitaldian egitekoak izan beharko dute eta exigitutako gutxienerako autofinantzaketa-maila bete, zein izango baita proiektu bakoitzaren aurrekontu araztuaren %35. Horiek horrela, dirulaguntza publikoek, guztira, ezin izango dute proiektuaren zenbatekoaren %65 gainditu, behin konputagarriak ez diren gaindikinak eta deialdiaren xedearekin zuzeneko lotura ez duten gastuak kendu ondoren.

DIRULAGUNTZA KOPURUA

Proiektuaren kopurua ezartzeko kontuan hartu beharrekoak:

- A) Proiektuaren zenbatekoa: gastu osoa (instruktoarearen nominak, materiala...; justifikazioan osorik justifikatu behar da kopuru hau).
- B) Eskatzailearen ekarpena: proiektuaren zenbatekotik % 35 gutxienez.
- C) Diru-laguntza publikorik badago edo bestelako sarrerarik badago, adierazi egin behar da.
- D) Eskatutako kopurua: PROIEKTUAREN ZENBATEKOA KEN (B ETA C-REN BATURA); proiektuaren zenbatekotik zenbat eskatu nahi den (**gehienez ere 3.000**).

Deialdia 10. orr.:

10.2 oinarria

Ematen diren dirulaguntzen kopuruaren gehieneko muga izango da 3.000 euro, eskatzaile bakoitzeko. Dirulaguntza hauetarako xedatutako kopuruak ez badu, hautatutako eskaera guztiak multzoan hartuta, aipatutako zenbateko horietara iristeko biderik uzten, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionalki murriztuko da.

Argibideetarako Bizkaiko Foru Aldundiaren arreta zerbitzua:

Nire Datuak | Irten

ES HARREMANA ES

EGOITZA ELEKTRONIKOA EGOITZA EZAGUTU IZAPIDEEN KATALOGOA NIRE IZAPIDEAK ZERBITZUAK ?

[Bizkaia.eus](#) > [Hasiera](#)

Harremanetarako zein bide erabili nahi duzu?

Telefono bidezkoa
Telefonoak eta ordutegiak.

TELEFONO BIDEZKO ARRETA

Telematikoa
Kontsultak posta elektronikoz.

ARRETA TELEMATIKOA

Aurrez aurrekoa
Herritarrentzako arreta-zerbitzua eta aldez aurretiko hitzorduak eskatzea.

AURREZ AURREKO ARRETA

Telefono bidezko arreta

Egoitza elektronikoaren erabilera

Egoitza elektronikoaren **edukiarri eta erabiltzeko** moduari buruzko argibideetarako:

[94 608 3001](tel:946083001)

Ordutegia

Astelehenetik ostiralera, 08:30 - 19:00

Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra

Astelehenetik ostiralera, 08:30 - 14:30

Izapide zehatzei buruzko kontsultak

Sartu [izapideen katalogoan](#), bilatu zuk nahi duzuna, eta zalan-tza gehiago baduzu, sakatu "Kontaktua" atalean.

Egoitza elektroniko
94 608 3001

Informatikako intzidentziak
94 608 3566

Izapide zehatzak
Izapideen katalogoa
Herritarrentzako Arreta
94 406 7777 / 94 406 8000

Informatikako intzidentziak

Arazo teknikoak konpontzeko, deitu hona:

[94 608 3566](tel:946083566)

Ordutegia

Astelehenetik ostegunera, 07:30 - 19:00

Ostiralean, 07:30 - 15:00

Ekainaren 1etik irailaren 30era:

Astelehenetik ostiralera, 07:30 - 14:30

Herritarrentzako arreta

Informazio orokorra nahi baduzu, deitu hona:

[94 406 7777](tel:944067777) / [94 406 8000](tel:944068000)

[Ordutegia](#)

Enpresetan euskara sustatzeko diru laguntzak

Lantokiko Prestakuntza eta DUALA EUSKARAZ

Argibideetarako Laneki elkartearen kontaktua:

Olatz Imaz Mendizabal

Lanekiren Kudeatzailea

☎ 688 75 85 69

E-maila: jakinbai@jakinbai.eus